

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2020

EUSTAT

1. Estatistika eta matematika metodologiaren alorreko bekak2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Estatistika eta matematika metodologiaren alorreko beka

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko azaroaren 12koa, Eustateko zuzendariarena, zeinaren bidez prestakuntzarako eta ikerketarako bi beketarako deialdia egiten baita estatistika-produkzio ofizialen estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: EBAZPENA, 2019ko azaroaren 12koa, Eustateko zuzendari nagusiarena (EHAA, 220. zk., 2019ko azaroaren 19koa).

[https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/eli/es-pv/res/2019/11/11/\(1\)/dof/spa/html/](https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/eli/es-pv/res/2019/11/11/(1)/dof/spa/html/)

Emate-ebazpena:

- EBAZPENA 2020ko uztailaren 16koa, Euskal Estatistika Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez adjudikatzen baitira estatistika-ekoizpen ofizialeko metodologia estatistiko-matematikoen arloko Prestakuntza eta ikerkuntzarako bi beka. (2020ko abuztuaren 28ko EHAA, 169 zk.).
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020003434>
- EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 21ekoa, Euskal Estatistika Erakundeko (Eustat) zuzendari nagusiarena. Honen bidez, prestakuntzarako eta ikerketarako beketako bat adjudikatzen da estatistika-produkzio ofizialen estatistika -eta matematika- metodologiaren alorrean. (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA, 21. zk.).
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021000535>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Prestakuntza eta ikerketarako beka estatistika-ekoizpen ofizialaren estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean, estatistika-ekoizpen ofizialeko ikerketa eta garapen gaietan profesionalen espezializazioa sustatzeko lanarekin jarraituz.

Prestakuntza beken helburuak bi dira:

- a) Espezializazio osagarria lortzea estatistika eta matematika aplikatuaren alorrean.
- b) Espezializazio osagarria lortzea estatistikarako softwarearen alorrean.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Beka bakoitzaren gehieneko diru-zuzkidura 32.000 euro izango da 24 hilabeteko gutzitako iraupenerako. Zenbateko horren barruan sartzen dira hileroko 1.250 euro eta gehienez 2.000 euroko poltsa, beka



bakoitzaren aldi osorako, bekadun bakoitzak bere proiektuaren gaiarekin lotutako ikastaro eta biltzarretara joateko prestakuntza-ikastaro, dieta eta bidaietan izandako gastuak ordaintzeko.

Eustateko zuzendari nagusiaren 2020ko uztailaren 16ko Ebazpenaren bidez esleitu ziren prestakuntza eta ikerketarako bi bekak. Bekadunetako batek uko egin ondoren (2020ko abenduaren 31n jakinarazi zen), Eustateko zuzendari nagusiaren 2021eko urtarrilaren 21eko Ebazpenaren bidez, ordezkotako bati beka eman zitzaion 2021eko otsailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Formakuntza-orduen kopurua	125	125
Ikerkuntza-orduen kopurua	625	625
Abiarazteen kopurua	3	3
Koaderno teknikoen artikuluen eta kongresu-txostenen kopurua	2	2